



# getxoBerri

## Laguntza ekonomiko gehigarri berria eskuratzeko baldintzak

Getxoberri-k aurreko astean jaso zuen bezala, Udalak prestazio ekonomiko gehigarri bat onartu du oinarriko premietarako, eta hori udalaren Aldizkakoak Ez diren Laguntzen oinarrien arabera izapidetuko da. Laguntza hori pertsonentzat eta/edo familientzat pentsatuta dago, eta AMNP izenekoetan jasota dauden oinarriko premien gastuetarako laguntza ekonomikoa da, baina muga gisa ezartzen diren diru-sarreraren eta

ondarearen muga malgutuz, ohikoak ez diren profil berriek jaso ahal izan dezaten.

Ez du eskaera-deialdi espezifikorik, erreferentziarako Gizarte-Langilea, egoera aztertu eta baloratu ondoren, laguntza izapidetu behar duena baita. Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetako telefonoetan: Algorta-Neguri (94 466 01 01), Romo-Areeta (94 466 01 53) eta Getxo-Andra Mari (94 466 01 30).

Xedea	Elikadura, jantziak eta oinarriko tresnak
Errolda	6 hilabete edo gutxiago egoera batzuetan
Diru-sarrerak	Urteko DSBEari dagokion zenbatekoa halako bitik gorako baliabiderik ez izatea, kideen kopuruaren arabera <ul style="list-style-type: none"> <li>★ 16.009,2€ kide baten bizikidetzaren unitatearentzat (18.368,16€ pentsiodunentzat)</li> <li>★ 20.557,2€ bi kiderentzat (22.960,08€ pentsiodunentzat)</li> <li>★ 22.740€ hiru edo gehiagorentzat (24.796€ pentsiodunentzat)</li> </ul>
Ondarea	DSBE prestaziorako ezarritako ondare-mugaren laurden bat baino gehiagoko ondarearik ez izatea <ul style="list-style-type: none"> <li>★ 8.607,08€ kide baten bizikidetzaren unitaterako</li> <li>★ 11.052,28€ bi kiderentzat</li> <li>★ 12.226€ hiru kide edo gehiagorentzat</li> </ul>
Gehienezko diru-kopurua	Gehienez 900€
Eskatzeko era	Gizarte Langilearen preskripzio teknikoa



## 478.398€ gehiago Gizarte-larrialdietarako Laguntzetarako

Eusko Jaurlaritzak Udalarari 478.398€ gehiago ematea onartu du GLL edo Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen artean banatzeko, COVID-19ren krisiak ziurrenera eragingo duen eskaeren hazkundeari aurre egiteko. Jaurlaritzak emango duen diru-kopuru hori gehituko da aurtengo urtearen hasieran onartutako 68.705€-koari. Edozein kasutan eta urteroz bezala, behar izanez gero, Udalak bere fondoetatik ipintzen du urtean zehar eskatutako GLL guztiei erantzuna eman ahal izateko.

Aldizkakoak ez diren laguntza horiek Eusko Jaurlaritzaren konturako prestazioak dira eta Udal Gizarte Zerbitzuek

bideratu, gestionatu eta ordaintzeko gauzatzen dituzte, gastu arrunt eta ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko edo saiheste aldera. Bestalde, aurtengo lehen hiruhilekoan, Udalak 168.531€ banatu ditu, 92 familia unitateri emandako 245 laguntzen artean. Horietatik 70 GLL, etxebizitzaren mantentze gastuetarako eman dira, beste 69 energia gastuetarako, 48 oinarriko beharretarako eta beste 38 alokairu eta ostaturako. Gainontzekoak, etxeko instalakuntzetarako eta konponketetarako, elektrotresnak erosteko eta zorpetzeari aurre egiteko izan dira.

### Aurreikusitako epeak betetzen ari dira 2019ko amaieran esleitu ondoren

## Edukiontzien horietan eta urdinetan ahoak ipintzeko lanak hasi dira

Aste honetan ontzien edukiontzietan (edukiontzien horiak) eta paper/kartoiaren edukiontzietan (edukiontzien urdinak) aho-sistema instalatzeko lanak hasi dira egiten. Ahodun estalki horiek abenduaren amaieran esleitu ziren eta horiei esker hondakinak edukiontzietan barruan uztea ere errazagoa izango da. Sistema horri esker, gainera, estalkiak eskuarekin ez ukitzeko herritarren eskaria ase ahal izango da, eta hori udarako eginda egotea aurreikusitua da. Ahoak eraikitze fasearen ondoren, "in situ" egingo diren muntatze lanen iraupena bi hilabetekoa izango da, gutxi gora behera, eta Areetako eta Algortako erdi guneeetan hasiko dira egiten. Egun dauden estalkiak kenduko dira eta ahoak dutenak ipiniko dira. Horregatik uneren batean edukiontzien bat estalkirik gabe egon daiteke. Errefusako edukiontzien estalkia (estalki grisak) 2. fase batean aldatuko da, aurreikusita zegoen bezala.

kin 2018ko azaroan sinatu zuen Hiri Hondakinei (HH) buruzko akordioan, 2022an gaikako bilketan eta bereizketan birziklapenaren %50era iristeko erronkan aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzak inplementatzeko, Europako zuzentzauei jarraituz.

Ildo horretan, adierazi behar da 2019an hondakinen birziklatze-tasa %34,50ekoa izan zela, eta aurreko urtean %31,31koa; Getxo aipatutako erronka horretatik

gero eta gertuago jarritz.

### 13 puntuko igoera edukiontzien berriak ezarri ondoren

Edukiontzien berriak Getxon ezartzearen ondorioz, ehuneko 13 puntu igo da HHS-Hiri Hondakin Solidoen gaikako bilketa udalerrian. Horrek esan nahi du edukiontzien zaharrak gaur egungoekin ordeztu zirenetik eta 2019ko amaierara arte, urtero 3.000 tona hondakin gehia-

go biltzen direla gaika, urtean 10.000 tonako kopurura iritsi arte (hondakin tona kopuru horri gehitu beharko zaizkio errefusa deritzon hondakinen zatia dagozkion 19.000 tonak, edukiontzien grisari dagozkionak, alegia). Edukiontzien hedapenaren ondorioz, gaikako 951 edukiontzien gehiago jarri ziren, eta, gaur egun, 1.613 edukiontzien daude guztira; errefusa frakzioa 574 edukiontzien grisak gehituta 2.187 edukiontzien daude guztira.

2019an, biztanle eta urte bakoitzeko honako kilo hauek sortu ziren Getxon: 44,35 kg paper, 21,54 kg ontzi, 25,03 kg beira eta 249,91 kg errefusa. Bizkaiko iazko datuen berri izan ez arren, 2018an Getxoko zifrak lurraldeko batez beste koaren gainera jarri ziren, %37 gehiago paperean, %31 gehiago ontzietan, %4 beiran eta %10 gutxiago gainerako frakzioan. Udalak herritar gehienek birziklatzearekin duten inplikazioari egotzi dio igoera hori, eta eskerrak eman dizkie egindako lanagatik, eta materia organikoa biltzeko zerbitzuan (edukiontzien marroia) alta ematera animatu du, 94 464 43 80 telefono-zenbakiaren bidez edo [www.getxo.info-citi.es](http://www.getxo.info-citi.es) helbidean online, funtsezko frakzioa baita 2022rako erronka hori lortzeko.







## Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak materialak eta arreta eskaintzen dizkie ikastetxeei eta familiei

Getxoko Udaleko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua, alarma-egoeraren hasieratik, udalerriko ikastetxee guztiekin harremanetan jartzen ari da, arreta eta hainbat euskarritan dauden materialak eskaintzeko, era honetan ikasleen garapenean garrantzitsuak diren gaiak lantzen jarraitu ahal izateko. Ildo horretan, familian emozioen eta yogaren kudeaketa lantzeko gida bat (*Patxadaz*) eskaini da, bereziki 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikasleei materiala

eskaini zaie, konfinamendu-egoeran izan daitekeen drogen kontsumoari buruz hausnartzeko.

Aldi berean, telefono bidezko arreta-zerbitzu bat jarri da abian (692 730 235) Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat, asteleheneetik igandera, 9:00etatik 21:00etara, familia-harremanetan sor daitezkeen zailtasunei, antsietate- eta larritasun-egoerei, droga-kontsumoek eragindako arazoei, apustu egin beharri eta abarri buruzko galderak erantzun ahal izateko.

Bestalde, Getxoko 272 familiarekin harremanetan jarraitzen da eskariak eta beharrak jaso eta erantzuteko, eta egungo egoerarako material interesgarri eta erabilgarriak banatzen ari dira. Edozein zalantza argitzeko, [gurasoeskolakgetxo@gmail.com](mailto:gurasoeskolakgetxo@gmail.com) posta elektronikora idatz daiteke.

Azkenik, mendekotasun-arazoak dituzten familientzako eta helduentzako laguntza psikologikoko zerbitzua prestatu da. Telefono hori (688 698 561) asteleheneetik igandera dago martxan, 09:00etatik 21:00etara.

## Erabilera mugatua garbigune nagusietan, Aiboakoarena barne

COVID-19 koronabirusak sortutako egoera dela eta, eta gutxienez alarma-egoerak dirauen bitartean, Garbiguneen sarearen itxiera partzialak indarrean jarraituko du. Garbiker erakundetik gogorarazi dutenez, garbiguneak kudeatzeko ardura duen Foru Aldundiko enpresa publikoa, garbigune zentralen edo nagusien erabilera, Aiboakoarena barne, aktibo dago, baina, aldi berean, erabilera hori mugatuta dago, zerbitzua bermatze aldera, konfinamendu-aldian erabiltzaile partikularren kopuruak gora egin baitu. Beraz, irekita dauden garbigune horietan zerbitzua ematen jarraituko dute asteleheneetik ostiralera (asteburuetan itxita egongo dira), osasun-alertaren baldintzak betez; honako hauentzat egongo dira zabalik: etxeko obra txikiak egiten ari diren autonomoak; Bizkaiko bulegoak eta denda txikiak; eta nekazariak, hondakin fitosanitarioen ontziak utzi ahal izateko. Era berean, Garbikerrekin hitzarmenak indarrean dituzten erakundeei zerbitzua ematen jarraituko da, eta alarma-egoeran garbiguneen eragin-eremuaren arabera murrizketak bertan behera geratu dira; beraz, sareari atxikitako edozein udalerritako honda-

kinak onartuko dira garbiguneetan. Esandako guztiagatik, Garbiker erakundeak zerbitzua ematen jarraitzen duten garbiguneetan kartel bat jarri du, osasun-alertaren baldintzak betez zer-

bitzuan lekua duten erabiltzaileen zerrenda jasotzen duena. Era berean, bere webgunean, [www.garbiker.bizkaia.eus](http://www.garbiker.bizkaia.eus), instalazioak erabiltzeko egungo baldintzak kontsulta daitezke.



## Kulturako profesionali laguntzeko programa

Baldintzak betetzen dituzten kultura-arloko langileek aurreko urteko errenta aitortpenean, PFEZean, aitortutako hileko diru-sarrera garbien batez bestekoaren %70 jasoko dute. Lanbidek eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatutako programa honek, euskarri ekonomikoa eskaini nahi die Covid-19ren ondorioengatik kalteak jaso dituzten kultura-arloko langileei. Izan ere, baldintzak betetzen dituzten langileei, dagokien kultura- edo sormen-jardueran aurreko urteko PFEZean aitortutako hileko diru-sarrera garbien batez bestekoaren %70 emango zaie. Laguntza-jasotzaileko muga 1.200 eurokoa izango da hilean, eta programa honen aurrekontua, guztira, 2,5 milioi eurokoa da.

Programa hau EAEn, Euskal Autonomia Erkidegoan, egoitza pertsonala eta fiskala duten pertsonen, adinez nagusiak direnei eta PFEZaren aitortpenean artisten jardueraren profesionala dutenei zuzenduta dago. Gainera, beste baldintzetako bat da jardueraren programak bertan behera uztearen ondorioz kaltetutako langileak izan behar direla, Covid-19ren egoeraren ondorioz kaltetutako langileak.

Datozen egunetan emango dira programa hau abian jartzeko beharrezkoak diren prozedura-arauak, inprimakiak, epeak eta gainerako elementuak. Helburua da apirila amaitu baino lehen martxan egotea.

Kultura-arloko laguntza horien inguruko informazio gehiago jasotzeko, hona jo: Getxolan 94 466 01 40. [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) eta [www.getxo.eus/getxolan](http://www.getxo.eus/getxolan).

## Hondartzaina posturako C.V.-ak aurkezteko epea zabalik

Maiatzaren 8ra arte dago zabalik Bizkaiko hondartzetan hondartzaina posturako curriculum vitaeak jasotzeko epea. Ezarritako betekizunei dagokienez, deialdia 18 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago, trebetasun sozialak dituztenei (herritarrekin harremanak izateko gaitasuna) eta talde-lana egiten dutenei; eta kontuan hartuko da ere libre egotea eta eskuragarritasun geografikoa edukitzea. Euskara eta gaztelania jakin behar dira, ingelesa jakitea ere baloratuko da, eta gidabaimena edukitzea eta ibilgailu propioa izatea eskatzen da.

Kontratazioa zerbitzuaren beharren arabera egingo da, eta aukeratuak izango diren curriculumak elkarrizketa bat pasako dute. Lanposturako egokitzat jotzen diren pertsonak lan-poltsan sartuko dira, eta bertatik aterako dira denboraldirako eta etorkizuneko ordezkapenentzako kontratatutakoak. C.v.-ak bidaltzeko posta-helbidea: [hondartzaina@ingure.net](mailto:hondartzaina@ingure.net). Tel.: 94 4243174.





**Kultur Etxeak data berriak ezarri ditu bertan behera utzitako ikuskizun gehienetarako, eta, egoeraren bilakaerak ahalbidetzen duen neurrian, gainerakoak aurten eta 2021ean kokatzen saiatuko da**

## Muxikebarri eta Romo Kultur Etxeko jarduera guztiak bertan behera lotu dira

Kultur Etxeak Muxikebarri eta Romo Kultur Etxea zentroetan maiatzeko programatuta zeukan jarduera guztia bertan behera utzi du, baita kultur erakunde horrek antolatzen dituen ekitaldiak ere: erakusketak, tailerrak, liburutegietako jarduerak, Zine-Kluba eta Igandeko Haur Zinema zikloak, Getxo Live! Musika zikloa eta Dantza Plaza.

Halere, Kultur Etxeak data berriak ezarri ditu dagoeneko bertan behera utzitako ikuskizun gehienetarako, eta, egoeraren bilakaerak ahalbidetzen duen neurrian, gainerako ekintzak aurten eta 2021ean zehar kokatzen saiatuko da. Data berrien berri ohiko kanalen bidez emango ditu Kultur Etxeak, ahal denean.

Bertan behera geratu diren ikuskizunen sarrerak aurretik txartelaz erosi dituztenei ahal den bezain laster itzuliko zaie dirua, ezer egin gabe. Erosketa eskudirutan izan bada, Muxikebarriko txarteldegian eskatu ahal izango dute alarma egoera eteten den egunaren biharamunetik aurrera, astelehene ostiralera, 16:00-20:00 bitartean.

Kultur Etxearen ekitaldien edo bere zerbitzuaren inguruko galderak honako posta elektronikora bidali be-

har dira: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus).

### Getxoarte

Getxoarte arte-programa ere, maiatzaren 22tik 24ra bitartean egitea aurreikusitako zena, bertan behera geratuko da. Hala ere, jaialdiaren zenbait atali eutsiko zaie, hala nola, ikusizko artista hautatuen arteko erakusketak eta proiektu sarituaren erakusketari, abendurako aurreikusitako dena.

Halaber, urte sasoi honetan izan ohi diren beste bi ekitaldi, alegia Erea hondartzako kontzertua eta Aix-getxo sariaren banaketa-ekitaldia ere, bertan behera geratu dira. Kultur Etxea dagoeneko lanean ari da data berriak jartzeko.

Kultur Aretotako zerbitzuarekin eta horiek antolatutako jarduerekin zerikusia duten aldaketak unean-unean jakinaraziko dira jakinarazpenen bidez, bai udalaren webgunean, bai Getxo Kulturaren sare sozialetan. Informazio gehiago: <https://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/noticias/340>

### Udal liburutegiak

Bestalde, udal liburutegiak Ipuinaren

ordua izeneko euskarazko ekimenaren bi saio egingo dituzte, Algortan eta Romon hilero egiten diren ipuin kontaketa. YouTube Getxo Liburutegiak kanalean ikusi ahal izango dira eta hurrei eta familiei zuzenduta daude. Lehen saioa, *Goazen denak basora!*, ostegun honetan izango da, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, Itziar Gameroen eskutik. Bigarrena, *Hunklpuinak: emozioei buruzko istorioak*, maiatzaren 21ean egingo da, Sorgina Txirulina kontalari dela. Bi saioak 30 eguneko ikusi ahal izango dira, adierazitako datetatik aurrera.

Gainera, udal liburutegiak jendeari gogorarazten diote berrogeialdian bere funts bibliografiko digitalaz, filmez eta musikaz goza dezaketela eLiburutegia plataformaren bidez. Hori erabili ahal izateko, beharrezkoa da edozein liburutegitako bazkide izatea eta pasahitz bat izatea. Halakorik ez duten pertsonak e-mail bat idatzi dezakete ([villamonte.liburutegia@getxo.eus](mailto:villamonte.liburutegia@getxo.eus), [romo.liburutegia@getxo.eus](mailto:romo.liburutegia@getxo.eus) edo [sannikolas.liburutegia@getxo.eus](mailto:sannikolas.liburutegia@getxo.eus) helbideetara) edo mezu bat bidali Whatsapp bidez (696.62.51.92 edo 696.97.96.30), plataforma horretara sartzeko euskarria jasotzeko.

## “Musika etxetik”, Musika Eskolarekin

Musika Eskolak *Musika etxetik* izeneko sail berri bat garatu du <https://www.getxo.eus/eu/musika-eskola> webgunean. Horren bidez, udal Musika Eskolatik herritarrak gonbidatzen dituzte eguneroko bizitzan parte egin dezaten, beren hezkuntza eta kultura musikal osatzeko. Hainbat ataletan banatuta dago sail berria: musika-edizioa, musika-prestakuntza, osasun-alertako ekimenak, musika-ikuskerak, kontzertuak eta ikuskizunak ... Edonork erabil dezake *Musika etxetik*, ikaslea izan edo ez. Musika Eskolak gune hori bisitatzeke eta edukia aberasteko iradokizunak bidaltzeko gonbita egin du.



Beste alde batetik, iragan astelehenean, apirilaren 20an, Andrés Isasi Musika Eskolak eskola-jarduerari ekin zion berriro, Aste Santuko oporraldiaren ostean. Joan den martxoaren 12tik egiten ari zen bezala, instrumentu, ahots eta abarrekin jarraitzen dute eskolakoek eta saioak indartu dituzte bideo-deiak erabiliz (ahal denean eta hezkuntza-baliabide gisa, irakasleek hala irizten dioten neurrian). Fase honetan, Musika-hizkuntzako ikasle guztiak beren asteko saioak ohiko ordutegian jaso ahal dituzte online *Musika Gela Birtuala* plataformaren bidez, hain zuzen ere.

## Etxealdetik Euskaraldira! abian ostiraletik

Etxealdetik Euskaraldira! ekimena abian jarriko da ostiraletan, apirilak 24, etxeko hizkuntzak aztertu eta bertan ditugun harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. Aldi berean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango den Euskaraldirako entrenamendu gisa balioko du aipatutako ekimenak. Hori dela eta, *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* lelopean hizkuntza-ohiturak euskararen alde aldatzeko ariketak eta laguntzak eskainiko eta zabalduko dira bideo-pilula batzuen bidez, zazpi eguneko, maiatzaren 3ra arte. Bideo-piluletan hainbat jardueratan (jolastu, zinema ikusi, familia bazkarietan mintzatu...) ohitura aldatzea proposatuko da. Maiatzaren 3an ekintza bateratu bat egitea luzatuko da eta, aldi berean, parte hartzaileei lehioetan puntu bat (logoaren modukoa) jartzeko eskatzen zaie, publikoki hori adierazteko.

Aipatutako egunetan, bideoak Euskaraldiko Facebook, Instagram eta Twitter kontuen eta hedabideen bidez zabalduko dira, bakoitzak nahi eta ahal duenean egiteko. Ideia da herriko lan batzordeek (udalerrian Udalak eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek sustatuta) eta herritarrek ere proposamen hori partekatzea, ahalik eta gehien zabaltzeko, esaldiren bat eta #etxealditikeuskaraldira eta @euskaraldia gehituz.

## Mintzapraktika on line Sendi proiektuaren eskutik

Udalak eta Egizu elkarteak sustatuko Sendi proiektuaren barruan mintzapraktika ekimena abian jarri da konfinamendu denboraldi honetan euskara indartzeko beharra duten umeak eta nerabeak laguntzeko. Helburua da guztiak hezkuntza-aukerak izateko laguntzea, euskaraz hitz egiteko aukera eskainiz. Izan ere, egoera ikusita, haur askoren hezkuntza-prozesuak, eta horren barruan hizkuntza-gaitasunak, kalte handia jasango du. Horretarako bolondresak bilatzen ari dira umeekin, ahal bada, astean birritan 15-20 minutuko elkarrizketak eduki ahal izateko. Elkarrizketak birtualak izango dira, eta boluntarioak eta haurrak (bere familiarak) adostutako tresnaren bidez egingo dira: telefonoa, Skype, Whasappeko bideo-deia, etab.

Bestalde, Sendiren barruko beste jarduera batzuk, tartean bingo familiarra (ostiraletan, apirilak 24, 17:00etan, Jitsi meet), ipuinak eta hainbat tailer online egiten ari dira eta baita Egizu elkartearenak ere, esatebaterako yoga klaseak (astelehen eta asteazkenetan), Idazleen txokoa, Irakurzaleen txokoa eta abar. Informazioa: [www.egizu.eus](http://www.egizu.eus)





1.700 bat lagunek parte hartu dute Internet bidez zuzenean ematen diren klaseetan

# Getxo Kirolak-ek entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditu eta zuzeneko kirol klaseen kopurua gehitu du

Getxo Kirolak-eko fitness-muskulazio gimnasioak entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen dizkie etxean entrenatu nahi duten pertsona guztiei. Era horretan, ekimen hori, Getxoko kirolen udal erakundeak *Etxean kirola egin* goiburuararekin abian jarri direnei batu zaie. Izan ere, koronabirusaren ondorioengatik osasun-krisiak eragindako etxaldirian zehar jarduera fisikoa sustatzeko jarri dira martxan.

Horrela nahi duten pertsonak harremanetan jar daitezke gimnasioako taldeko profesionalekin, horiek entrenamenduak astero pertsonalizatuko baitizkiete, norberaren ezaugarriak, premiak eta etxean entrenamendurako duten materiala kontuan hartuta. Era horretan, gimnasioarekin harremanetan jartzeko, mezu bat idatzi behar da [getxokirolak-fitness@gmail.com](mailto:getxokirolak-fitness@gmail.com) posta elektronikora edo 675 714 144 telefonora deitu.

## Zuzeneko klase gehiago

Horrez gain, Getxo Kirolak-ek Internet bidezko zuzeneko klaseak areagotzea erabaki du. Asteotan, 1.700 bat pertsonak hartu dute parte klase horietan. Astelehenetik ostiralera honako klase hauek eskaintzen dira: egokitzen fisiko orokorra adinekoentzat (9:30ean), global fitness eta egokitzen orokor au-



rreratuagoa (10:30ean), pilates eta bizkar osasuntsua (11:30ean), haurrentzako klasea (17:30ean) eta yoga (18:30ean). Modu horretan, seigarren klase bat gehitu da, eta 19:30ean izango da: pilates modalitate astelero eta asteazkenean, eta global fitness klasea astearte eta ostegunetan. Klaseetara edonon sar daiteke eta doakoak dira. Getxo Kirolak web orrialdeko *Kirol-ikastaroak* online ataletik sar daiteke.

Era berean, Getxo Kirolak-en YouTube kanalean, Getxoko kirol-komunitateak egindako bideoak argitaratzen ari dira gomendio eta entrenamendu gehiagorekin. Besteak beste, klub eta elkarteek, banakako kirolariek, gimnasioek eta udalerriko kirol-zentro pribatuek egin dituzte. Bideo horiek ere 1.700 bat lagunek jarraitu dituzte azken aste hauetan zehar.

Azkenik, nabarmendu behar da *Etxean kirola egiten baduzu, kontu ezazu sare sozialetan #GetxoKirolak etiketa erabilita* goiburuararekin, kirol elkarteak beren sare sozialetan aholkuak eta testigantzak argitaratzen ari direla egunotan prestatuta nola burutzen duten erakusteko, Getxoko herritarrek aipatutako etiketarekin etxean egiten duten jarduera fisikoa partekatzea animatzearekin batera.

**\*Txirrindularitza: Getxoko zirkuituak abuztuaren 2a mantentzen du.** Koronabirusaren krisiak Italiako Giroaren mailako probak, Euskal Herriko Itzulua edo udaberriko proba klasikoak egutegitik desagerrarazi dituen arren, eta etorkizunak zehazki zer ekarriko digun inork ez dakiela kontuan hartuta, udalerriko Punta Galea Txirrindulari Elkarteak datorren abuztuaren 2ko data mantentzen du Getxoko Zirkuituaren 75. edizioa ospatzeko. Frantziako Tourrak dagoeneko iragarri du lasterketa abuztuaren 29tik aurrera izateko lanean ari dela. Eta, ildo beretik, eta ziurgabetasuna gorabehera, Getxoko gizarteak une honetan lanean jarraitzen du aurtengo lasterketaren edizio hori ahalik eta hobekien atera dadin, beti ere, probaren etorkizuna markatuko duten erakundeen jarraibideak eta pertsona guztien osasuna zaintzeko lehentasun osoa errespetatuz.

**Bela: 'I. RCMA-RSC Trofeo Birtuala' azken fasea.** Abrako Itsas Kluba-R.C.S.-k I. RCMA-RSC Trofeo Birtuala antolatu du Bela arina, Kurtzero eta J80 klaseetan, Regatta Inshore plataforma birtualaren bitartez. Joan den asteburuko sailkapen faseen ostean, Alvaro Rezolaren *The Basile* lehenengo postuan dago, Kurtzero klasean; Nicolas Jobbe-Duval eta Gonzalo Iturbe dira buruan, J80an; eta Jose Azqueta, bela arinean. Azken fasea asteburu honetan izango da, apirilaren 25ean eta 26an. Ontzidien nabigatuko da *Day Boat Race* (J70) ontziarekin, Kurtzero eta J80 klaseetan, eta bela arineko klasean 49er ontziarekin nabigatuko da. Klase bakoitzeko irabazle bat egongo da, eta azken sailkapen orokorrean (Urrezko Taldeko kideen artean) puntuazio txikiena lortzen duten ontziak izango dira garaipena lortuko dutenak.



## DYA-ren laguntza-lana eskertu da

Amaia Agirre alkate getxotarrak DYA Elkartearen instalazioak bisitatu zituen aurreko asteartean, Algortako Bizkerre kalean. Bertan, Javier Ardanaz elkarte horretako arduradunak harrera egin zion. Bizi dugun alarma-egoera honetan, Getxoko Udaltzaingoa eta Babes Zibilari laguntzeko lanak egiten ari da DYA eta NBEak (maskarak, eskularruak, segurtasun-pantailak, etab.) ospitaletan, osasun-zentroetan, zahar-egoitzetan, metroan eta supermerkatuetan... banatzeko lanak kudeatzen ari da. Alkateak eskerrak eman zizkien lan horiengatik eta ematen ari diren telefono bidezko laguntza psikologikoagatik, pertsonen emozioak eta konfinamendua kudeatzen laguntzeagatik; Eusko Jaurlaritzaren telelaguntza-zerbitzua erabiltzen duten adinekoei etxean laguntzeagatik eta Bizkaiko adineko eta/edo mendeko pertsonentzako etxeko farmazia hornitzeagatik, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, besteak beste. Agirrek nabarmendu zuen "pandemia hau hasi aurretik zuen lana garrantzitsua bazen, orain argi ikusten da gizartearekiko duzun konpromisoaren beharra, jende asko zuen eguneroko lanaren mende baitago. Hau guztia pasatuko da".



## Amaia Agirre alkateak Itsasoko Gurutze Gorriaren instalazioak bisitatu ditu, Arriluzen

Amaia Agirre Getxoko alkatea Itsasoko Gurutze Gorriaren instalazioak bisitatu zituen aurreko asteartean, COVID-19k eragindako osasun-krisiak ekarri dituen gizarte- eta osasun-beharrei erantzunez erakunde horretako boluntarioak egiten ari diren lana eskertzeko. Agirrek eskerrak eman zizkion Gurutze Gorriari gobernu taldearen izenean, pertsona eta familia ahulenei elikagaiak, botikak eta premia biziko produktuak emateko hartu duen konpromisoagatik, baita Andra Mari kiroldegian arrisku edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonentzako Udalak prestatutako aterpetxeak erakutsitako babesagatik ere, beste hainbat lan solidarioen artean. "Pandemia egoera honekin une latzak bizitzen ari gara" adierazi zuen alkateak, "eta udal gobernuaren aldetik, esker onik handiena adierazi nahi dizuet boluntario guztiei; izan ere, lan nekazaria eta arduratsua eginez, elkartsuna, konpromisoa eta hurbiltasun mezua helarazten diezue Getxoko herritar guztiei. Badakigu bidea luzea izango dela, baina guztion artean egingo dugu aurrera", esan zuen, azkenik, alkateak.